

2024. urteko dirulaguntzen deialdia

Esparrua: INGURUMENA

**Dirulaguntzen 2. lerroa: AUZOKO BIHOTZ BERDEEN
INGURUMEN ETA GIZARTE HOBEKUNTZA, ESKOLAKO
2030 AGENDAREN BIDEZ**

1. artikulua.- Eremua eta xedea

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, ingurumen arloaren barruan, "Auzoko bihotz berdeen ingurumen eta gizarte hobekuntza Eskolako 2030 Agendaren bidez" dirulaguntzen deialdia egiten du.

Helburua da Bilboko Eskolako 2030 Agendan parte hartzen duten zentroetako eta Lehen Hezkuntza baizik eskaintzen ez duten ikastetxeetako jarduerak sustatzea. Jarduera horien bidez, zentro horiek kokatuta dauden auzoetako ingurumen eta gizarte arloko hobekuntza lortu nahi da, taldeekin, elkarteekin eta familiekin lankidetzan jardunez. Era berean, ingurumenaren gaineko kontzientziaketa eta ikasleak auzoko bizitzan inplikatu daitezten lortu nahi da, horrela, Bilboko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen lagunduz, 12. helburu estrategikoari dagokionez: "Ingurumen-jasangarritasunaren, mugikortasun jasangarriaren, irisgarritasunaren eta hiri-berroneratzearen aldeko apustua egitea, Bilboren garapen jasangarriko zutabe gisa"; izan ere, helburu horretan kokatzen dira dirulaguntzen lerro hau eta hura betetzeari eragiten dion modua.

Jarduera horiek gauzatzeko epea: 2024ko irailaren 1etik 2025eko uztailaren 30era.

2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia

Eskabideak ebazteko prozedurak honako arau hauek bete beharko ditu:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko organismo eta entitateek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (BAO, 2016ko uztailaren 20a),
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege hori garatzen duen araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Halaber, honako lege hauetan dirulaguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki, I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. Titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.

3. artikulua.- Entitate onuradunak.

3.1. Bilboko Eskolako 2030 Agendan parte hartzen duten ikastetxeak eta Bilboko haur eta lehen hezkuntzako irakaskuntza eskusiboko zentroak edo, bestela, ikastetxe horietako guraso-elkarteak.

3.2.. Elkarre eskatzaileek Bilboko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Entitateen Erregistroan (Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030 Agenda eta Nazioarteko Galetarako Saila) inskribatuta eta datuak eguneratuta eduki beharko dituzte. Pl. Venezuela 2, 4.a).

3.3 Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte entitate eskatzaileek eskaera aurkeztu den unean, dirulaguntza ematean, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.

4. artikulua.- Aurrekontu-kredituak.

4.1. Deialdiko dirulaguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu-kodearen (**PEP 2024/00064**)) 2024 ekitaldirako onartutako gastu-proiektuaren kontura finantzatuko dira (**2024**).

Deialdi honetarako zenbatekoa: **30.000 euro**.

4.2. Hala ere, deialdia onartzen denetik dirulaguntza eman arte egoera ekonomikoak txarrera egingo balu, kopuruak murriztu egin ahal izango dira, defizitik ez izateko; administrazio publikoen betebeharrak hori Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarrita eta, beraz, aurrekontuak doitzekoa ere bai.

5. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

5.1. Norgehiagoka izango da diruz lagundu daitekeen kontzeptuari aplikatuko zaion araubidea.

- Norgehiagokako araubidean, dirulaguntzak emateko, alderatu egiten dira aurkeztutako eskabideak, haien artean lehentasun hurrenkera bat ezartzearen 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, eta dirulaguntza ematen zaie baloraziorik handiena lortu duten eskaerei, inolaz ere gaintu gabe deialdian ezarritako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa.

5.4. Norgehiagokako lehiaketan, 60 puntuko gutxienekora helduta, programa bakoitzak lortutako puntuazioari aplikatuko zaion ehuneko baten araberrako kopurua emango da dirulaguntza gisa, honako taula honekin bat etorrira:

Programari emandako puntuak	Emango zaion dirulaguntzaren %.
80 puntutik gora	Eskatutakoaren % 100
70 eta 80 puntu bitartean	Eskatutakoaren % 80
70 puntu baino gutxiago	Eskatutakoaren % 70

6. artikulua.- Diruz lagunduko diren kontzeptuak

Bilboko Eskolako 2030 Agendan parte hartzen duten ikastetxeen eta Bilboko lehen hezkuntzako irakaskuntza eskusiboko ikastetxeen edo, halakorik ezean, ikastetxe horietako guraso-elkarteen jarduketak, horiek kokatuta dauden inguruko ingurumen- eta gizarte-hobekuntza lortzeko, ikastetxeetako ikasleen inplikazioarekin.

Diruz lagundu ahal izango dira, baita, ikastetxeetako patioetan biodibertsitatea hobetzeko jarduerak, hala nola, lorategi txikiak sortzea flora autoktonokoarekin, eskola-baratzea sortzea, etab.

Jarduera horiek guztiak ikastetxeetako IGEEkin, elkarteekin, kolektiboekin edo inguruko boluntarioekin egin ahal izango dira.

Gauzatzeko epea: 2024ko irailaren 1etik 2025eko uztailaren 30era.

Ez dira diruz laguntzekoak izango: Eskolako 2030 Agendan parte hartzen ez duten ikastetxeak, berariaz haur eta lehen hezkuntzako irakaskuntzakoak ez direnak.

Ez dira diruz laguntzekoak izango dirulaguntzetarako deialdi honetan Udalaren beste sail batzuetako dirulaguntzen deialdietan sartzen diren programak.

Era berean, ez dira diruz lagunduko inbertsioztat jotzen diren erosketak.

Otordu-zerbitzuen gastuek (catering) eta ordezkariak gastuek diruz lagundutako programarekin lotura zuzena badute, justifikazioan ez da onartuko gastu horiek programaren aurrekontua % 5 baino gehiago gaitzitzea.

Udalak beretzat gordeko du zenbait elementu kentzeko ahala, hala nola landare-ontzi, horma-irudi eta abar, dirulaguntza-lerro honen esparruan eginak izan eta denboraren joanean hondatuta badaude edo arriskurik eragiten badute.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa: 5.000

Gutxieneko puntuak: 60

Kontzeptu bakoitzeko gehienez aurkez daitezkeen programen kopurua: 1

7. artikulua.- Eskabideak.

7.-1. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2024ko otsailaren 16an amaituko da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia honako leku hauetan dago eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian (www.bilbao.net)
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio).
- Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean (www.infosubvenciones.es).
- Bilboko Udaleko Herritarrentzako Arreta Bulegoan eta barrutiko udal-bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3. Tramitazioa.

Udalaren web-orriaren bidez edo udal erregistroan egin daitezke eskaerak.

- Eskaera udalaren **web-orriaren bidez** izapidetuz gero, aplikazioak eskatzen dituen urrats guztiak eta datu guztiak eman beharko dira.
- Eskaerak **udal erregistroan aurkeztuz** gero, eremu eta dirulaguntza-lerro bakoitzerako eskaera-orri bat bete beharko da, Bilboko Udalak emandako ereduak erabiliz.

Orri horretan zehaztuko dira eskaera egin duen entitateak dirulaguntza-lerro horretarako aurkeztu dituen programak, lerroa banakatuta dagoen eta dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuen arabera.

Eskaera-orria Herritarren Arreta Bulegoan edo barrutietako udal bulegoetan aurkez daiteke, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren legezko beste leku batzuetan ere.

7.4. Entitatearen legezko ordezkariak edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, adieraziz emandako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua,

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatu duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 21bis.2 artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaera adierazitako datuak egiazkoak direla.

7.5. Dirulaguntzaren eskaerak ez dira inoiz ere izango programa bati emateko gehieneko diru-zenbatekoa baino handiagoak. Gehieneko zenbateko hori diruz lagundu ahal den kontzeptu bakoitzerako ezartzen da.

7.6. Era berean, eskaera guztietan izan behar da kontuan dirulaguntzen bidez nahiz beste iturri batzuetatik eskuratzen den finantzaketa osoak ezin duela gainditu aurkeztu den programaren kostua.

7.7. Aurkeztutako eskabidea hobeto baloratzeko egokitzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal dizkie Bilboko Udalak entitate eskatzaileei.

7.8. Programa bakoitza dirulaguntzen udal-lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

7.9. Dirulaguntza-lerro honetan, gehienez ere, programa 1 aurkeztu daitezke.

8. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskaria Udalaren **web-orriaren bidez** izapidetzen bada, bi agiri erantsi behar dira PDF formatuan:

- Eskariarekin batera programaren edukia azaltzen duen agiria. Bertan jasoko da aurkeztu den gasturako aurrekontuaren azalpen zehatza.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.2. Eskaria **udal erregistroan aurkeztu bada**, dokumentazio hau gehitu behar zaio:

- Eskaera-orria, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera, urteka banakatuta.
- Eskariarekin batera programaren edukia azaltzen duen agiria. Bertan jasoko da aurkeztu den gasturako aurrekontuaren azalpen zehatza.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.3. Eskaera sinatzen duenak baimena emango dio Bilboko Udalari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko. Dena dela, gerta liteke baimena ez ematea, eta orduan, aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanak.

8.4. Bilboko Udalaren dirulaguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden entitateek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta (eman egingo zaie).

8.5. Elkarre eskatzaileek 3.1 artikuluan ezarritako betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte: Bilboko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Entitateen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria

8.6. Eskabidea behar bezala beteta ez badago, edo aipatutako datu edo agirietakoren bat falta bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan**; eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela, bestelako izapiderik egin beharrik gabe.

9. artikulua.- Balorazio irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauen arabera baloratuko dira:

A) Programaren baloraziorako irizpideakGUZTIRA 85 puntu

a) Programaren interesa. 48 puntu gehienez
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Egingo diren jarduerak. Sailaren ildo estrategikoekin, helburuekin eta irizpideekin bat etortzea. Parte-hartzaileen kopurua. Aurreikusitako inpaktua. Teknologia berriak berritzea eta erabiltzea. Programaren iraupena. Programa zenbateraino dagoen finkatuta (aurretik ere garatutako programa den edo ez). Lankidetzak beste erakunde batzuekin. Sareko lana (Bilboko 2030 Eskola Agendan parte hartzea). Jarduera non egiten den. Ekintzaren justifikazioa (programa gauzatzeko arrazoiak). 2024an gehituko diren premiak testuinguruan jartzea eta aztertzea.

b) Programaren diseinuaren kalitatea..... 10 puntu gehienez
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Jarduerak helburuetara zenbateraino egokitzen diren. Helburuak, ekintzak, kronograma eta metodologia sartuta dauden edo ez. Barne-komunikazioa. Kanpo-komunikazioa. Ebaluazio-sistema. Proiektuaren koherentzia.

c) Aurrekontuaren egokitasuna 10 puntu gehienez
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko erlazioa. Finantzen arloko ahalegina (beste finantzaketa-iturri batzuk bilatzea). Baliabideak esleitzeko orduan zer eraginkortasun erakutsi den.

d) Programan zeharkako gaiei -euskara, genero-berdintasuna, kulturartekotasuna, gazteria, irisgarritasuna eta osasunaren ikuspegia- emandako tratamendua.

.....17 puntu gehienez
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

✓ Berdintasuna:5 puntu gehienez
Emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdintasuna kontuan hartzen duten programak baliabideak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, kirolerakoak, denbora, aisialdia, partaidetza soziala eta politikoa, enplegua, osasuna...) eskuratu eta kontrolatzeko orduan, eta helburu, ekintza eta/edo neurri zehatzetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria desagerrarazteko neurriak jasotzen dituztenak.

✓ Euskara: 4 puntu gehienez
Euskarazko jarduerak herritar elebidunentzat.

✓ Kulturartekotasuna:2 puntu gehienez
Kultura-aniztasuna eta migrazioei eta lurraldeko babeslekuak bereziki lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten programak, horiek aitortu eta ikusaraztera bideratutako

helburuekin eta ekintzekin; berdintasuna sustatzera eta diskriminazioaren aurkako borrokara bideratutako programak; aniztasun-testuinguruetan elkarrekintza positiboa sustatzera begirako programak.

✓ Gazteria:2 puntu gehienez
12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako jarduerak dituzten programak.

✓ Desgaitasuna: 2 puntu gehienez
Desgaitasun fisikoa, sentsoriala edo intelektuala duten pertsonen erabateko parte-hartzea errazteko jarduerak edo zerbitzuak jasotzen dituzten programak.

✓ Osasuna:..... 2 puntu gehienez
Portaera eta jokabide osasungarriak garatzen laguntzen duten programak, osasunean dauden desberdintasunak azpimarratuz.

b) Entitate eskatzaileari buruzko balorazioaGUZTIRA 15 puntu

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Programa garatzeko gaitasuna. Esperientzia frogatua. Ikastetxean edo guraso-elkartean berdintasun-batzordea edo berdintasun-arduraduna egotea. Egitura parte-hartzailea eta ekitatiboa. Koordinakundeetan parte hartzea. Sexuaren arabera egindako jardueren memoria. Egoitzaren irisgarritasuna. Ingurumenari eta jasangarritasunari buruzko prestakuntza-ikastaroetara joatea.

10. artikulua.- Instrukzioa eta balorazioa

10.1 Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna **Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Jasangarritasuneko Zuzendaritzako Ingurumeneko Sailataleko teknikariak** izango dira.

10.2. Balorazio Batzordea kide anitzeko organoa da eta **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren alaketaren martxoaren 3ko 1/2022 Legean ezarritakoaren arabera**, hauek dira kideak:

Presidentea: **Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zinegotzi ordezkari eta alkateordea.**

Idazkaria: **Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Sailatal Juridikoko burua.**

Kideak: **Jasangarritasuneko zuzendaria.**

Ingurumeneko Sailataleko burua.

Ingurumenaren arloko teknikaria.

10.3. Eskaerak ebaluatu ondoren, deialdi honetan ezarritako balorazio irizpideekin bat etorritik, Balorazio Batzordeak txosten bat emango du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

10.4. Organo instruktoreak, Balorazio Batzordearen txostena ikusita, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berririo formulatzea

Programa guztien balorazioa egindakoan, entitate bati eman beharreko diru-zenbatekoa ez badator bat eskatutakoarekin, arau hauek bete beharko dira, Bilboko Udalaren deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorraren 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera:

- A) Eman beharreko dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, entitateak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, azken aurrekontu aldatu hori izango da justifikatu beharrekoa.

- B) Eman beharreko dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

- a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da;
- b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokituz, edo, bestela, dirulaguntzari uko egin beharko diola. Udalak, entitatearen berariazko erantzuna jasotzen ez badu, ulertuko du dirulaguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua.- Ebazpena

12.1. Gobernu Batzordeak ebatziko du prozedurari buruz.

12.2. Eskariak ebazteko eta eskaera egin duten entitateei jakinarazpena egiteko gehieneko epea sei (6) hilabetekoa izango da, deialdi hau argitaratzen denetik hasita. Dirulaguntza guztiak jakinaraziko dira: ematen direnak eta ematen ez direnak.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, entitateek, administrazioaren isiltasuna dela eta, dirulaguntzaren eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Erabaki honen kontra, administrazio-bidea amaitzen duena, berraztertze errekurtso aukerakoa aurkeztu ahal duzu, Gobernu Batzordearen aurrean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bestela, Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kasu horretan ere.

13. artikulua.- Dirulaguntzen ordainketa

13.1. Orokorrean, dirulaguntzak aldeztu aurretik ordainduko dira, justifikatu aurretik, eta esleitutako dirulaguntzaren guztirako zenbatekoa ordainduko da, bermerik eskatu gabe; ordainketa aurreratu hau dirulaguntzari dagozkion jardunak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan egiten da.

13.2. Onartutako dirulaguntza banku transferentzia bidez ordainduko da, Udalaren Hartzekodunen Erregistroan ageri den entitatearen kontu korrontean dirua sartuz.

13.3. Justifikatzeko epea amaituta entitateak justifikatu gabeko dirulaguntzaren bat balu, ez zaio deialdi honetako dirulaguntzako kopurua ordainduko. Ez da ordainduko, halaber, entitateari lehenagoko dirulaguntza bat itzultzeko eskatu bazaio eta ez badu itzuli.

14. artikulua.- Entitate onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea

Entitateak udalaren finantziazio horren publizitatea egin beharko du, Bilboko Udalaren logotipoa agertuta, inprimatzen dituen materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroigarri-plaketan, bitarteko elektronikotan, ikus-entzunezkoetan zein idatzizko komunikabideetan argitaratutako iragarkietan. Argitalpenetan, gainera, edukiaren erantzukizunaren klausula bat ere jasoko da, hau dioena:

Bilboko Udalak diruz lagundu du proiektu hau. Hala ere, edukiaren erantzule bakarra entitate onuraduna da.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren % 10 itzuli beharko da.

Era berean, onuradunak hizkuntza ofizial biak —euskara eta gaztelania— erabili beharko ditu diruz lagundutako programaren edo jardueraren publizitatea egiteko prestatzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Halaber, diruz lagundutako jarduera dela eta egiten diren sustapen-jarduera publikoak ele bitan egingo dira, lehenik euskara eta ondoren gaztelania erabiliz. Hala ere, hartzaileen eta komunikabidearen ezaugarrien arabera, komunikazioak euskara hutsez egin ahal izango dira.

Entitate onuradunek jaso dituzten dirulaguntzen publizitatea egin beharko dute, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua.- Azpikontratazioa

Entitate onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Dirulaguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar da, betiere kontuan hartuta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketaren martxoaren 3ko 1/2022 Legeak sartutako obligazioak.

16. artikulua.- Programan aldaketak egitea

Programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, baimena eskatu behar zaio Bilboko Udalari, udal erregistroaren bidez; Udalak beren-beregi eman behar du horretarako baimena.

Funtsezko aldaketak egiteko eskabideak arrazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuko eta kronogramako ondorioak zehaztu beharko dira. Gobernu Batzordeak kasuan kasuko sailari eskuordetzen dio aldaketa horiek baimentzeko eskumena.

Funtsezko aldaketatzat jotzen dira honako hauek:

- Aldaketak helburu orokor eta/edo espezifikotan.
- % 20tik gorako aldaketak onartutako aurrekontu-partidetan (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezingo diete zeharkako kostuei eragin), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez badute.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epea hiru hilabetez luzatu ahal izango da, gehienez ere, aldez aurreko baimenik behar izan gabe. Luzapen horren berri eman beharko zaio Bilboko Udalari, justifikazioaren hasierako epea amaitu baino lehen, eta epe hori automatikoki luzatutzat joko da jakinarazpen horrekin.

Baldin eta dena delako aldaketak programaren aurrekontua gutxitzen badu, Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Dirulaguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa justifikazioa egiten denean onartu ahalko da, beste batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

17. artikulua.- Uko egitea

Behin dirulaguntza emanda, entitate onuradunak dirulaguntzari uko egitea eskatu ahalko du Bilboko Udaleko erregistro orokorrean eskaera aurkeztuta.

Jarduera egiteko epea amaitu aurretik aurkeztu beharko da dirulaguntzari uko egiteko eskaera, eta behin dagokion saileko ordezkariak onartuta, eragina izango du. Jasotako diru-kopurua itzuli beharko du entitateak, hala badagokio.

Uko egiteak kreditu nahikoa libre uzten badu ukatutako beste eskabide bati (deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik) erantzuteko, laguntza ematen duen organoak erabaki ahal izango du, beste deialdirik egin behar izan gabe, dirulaguntza ematea zerrendako ondorengo pertsona edo erakunde eskatzaileari edo eskatzaileei, puntuazioaren arabera.

18. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Bilboko Udaletik jasotzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde pribatu nahiz publiko batzuenekin. Edonola ere, dirulaguntzetatik eta beste iturri batzuetatik lortutako finantziazioaren zenbatekoa ezin izango da izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

Onuradunek udal ebazpenaren ondoren beste administrazio publiko batzuek ematen dituzten dirulaguntzak jasotzen badituzte proiektu bererako, Bilboko Udalari derrigorrean jakinarazi beharko diote, hilabete baino lehenago, dagokion jakinarazpena jasotzen dutenetik.

19. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa

19.1. Justifikatzeko epea.

Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea 3 hilabetekoa izango da, programa amaitzen denetik edo, programa gauzatu eta gero ematen bada, dirulaguntza ematen denetik hasita.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa.

Dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako aurrekontu osoa (% 100) justifikatu beharko da, eta ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik; horrela ezartzen du Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak.

19.3. Justifikazio sistema

19.3.1. Norgehiagoka eta puntukako hainbanaketa dagoenean, entitate onuradunak programa, proiektu edo ekintzan egindako gastuaren kontu justifikagarria aurkeztu beharko du, ondoren aipatzen den moduan.

Justifikatzeko kontuak honako hauek jasoko ditu:

- a) Programa betearazteko egin diren jardueren memoria eta emaitzak. Eskaeran aurkeztutako programarekin bat etorriko da hori guztia.

Proiektuaren memoria tekniko horrek informazioa jasoko du, eta zehazki aipatuko ditu egindako ekintzak, lortutako emaitzak, lortutako helburuak eta antzemandako arazoak, genero-ikuspegitik. Hala bada, proiektuak alderdi tekniko, ekologiko eta sozialetan duen eragina aipatuko da.

Memoria teknikoan Power Point dokumentu bat sartu ahal izango da (gehienez 20 diapositiba). Bertan, gauzatutako proiektuaren laburpena egingo da eta, besteak beste, lorpenak, ahuleziak, indarguneak, jasangarritasuna, gauzatutako ekintzak eta abar jasoko dira. Proiektua egin den eremu geografikoaren kokapen-mapak eta haren argazkiak jasoko ditu nahitaez. Power Point dokumentu hori Bilboko Udalaren webgunean jarri ahal izango da, dagozkion urteko memorietan.

Proiektuak beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzak jaso baditu, ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuko 33. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, administrazio publiko horien fondo-ekarpenei dagokienez.

Kutxako ordainagiriak erabiltzeko baimena ematen da, betiere ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuaren 40.3 artikuluan adierazitako eran.

- a) Programa gauzatzeari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren balantzea, udalak emandako ereduari jarraituta.

- b) Programa gauzatzeari dagozkion fakturak, udalak emandako ereduari jarraituta.
- c) Deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorraren 14.2. artikulua ezarritakoarekin bat, programa gauzatzeko aurreikusitako epe barruan egindako gastuak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak. Horretarako, hauek bereiziko dira:

- Programa gauzatzearekin zuzeneko zerikusia duten kostuak. Guztiz justifikatuta egon beharko dute, ordainagiri bidez edo froga-balio baliokidea duten bestelako agiri batzuen bidez.

Gastuak justifikatzeko agirietan, honako datu hauek jasoko dira, nahitaez:

- Entitate onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren xedearen deskribapena. Zuzeneko zerikusia izan beharko du programa betearaztearekin.

Era berean, justifikatzen den programari buruzkoak baino ez dira izango justifikazio-agiriak.

Salbuespen modura, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsaria erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriaren kopiarekin batera (NAN, AIZ edo pasaportea). Ordainsaria 200 euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Langile-gastuak justifikatzeko, nominak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko dira.

- Zeharkako kostuak: beren beregi eskatu ezean, ez da ezelako justifikazio-agiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari eratxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, entitate onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauarekin bat etorruta eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Eratxikitzen diren kostuak ez dira inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino gehiago.

Justifikazioa egiteko, dirulaguntza emateko baliatutako aurrekontuan onuradunak berak deklaraturikoa izango da zeharkako kostuetan onartuko den ehunekoa eta, hala, egiaz justifikatutako zuzeneko gastuei aplikatuko zaie ehuneko hori.

- d) Diruz lagundu daitekeen kontzeptuaren zenbatekoa handiagoa denean sektore publikoko kontratuen legeriak kontratu txikirako ezarritakoa baino, entitate onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie beste horrenbeste hornitzaileari, obra egiteko konpromisoa hartu baino lehen, zerbitzua eman baino lehen edo ondasuna entregatu baino lehen.

Bestalde, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskaeran aurkeztu beharreko eskaintzen arteko hautua efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta, ekonomikoki onuragarriena den proposamena hautatzen ez bada, memoria batean justifikatu beharko da, espresuki.

19.4 Justifikaziorako beste betebeharrak.

Memorian hizkuntza edo irudi ez-sexistak erabili beharko dira. Gainera, baloratu eta puntuatutako zeharkako politikei buruzko datuak eman beharko dira (berdintasuna, euskara, gazteria, kulturartekotasuna, osasuna).

19.5. Justifikaziorik ez edo justifikazio nahikorik ez.

Justifikatzeko betebeharra bete ezean edo behar bestean justifikatu ezean, edo 14. artikuluan aipatutako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak bete ezean, jasotako diru-kopurua itzuli beharko da, berandutzako interesak barne, Dirulaguntzei buruzko Legearen 37.1 artikuluan ezarri bezalaxe.

20. artikulua.- Emandako dirulaguntzen publizitatea

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak argitaratuko dira udalaren web-orrian.

Era berean, dirulaguntzen publizitatea egingo da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez, Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.